

Alaves Derbiari begira

dute eta Bartzelonan galdu arren goiko postuetan bukatuko dute denboraldia. Gure arma betikoa izango da: etengabeko borroka eta handien aurka dugun motibazioa».

Kike Burgos lehen talde-
ra heldu zen, baina ez zuen zortetik izan. Bost denboraldi jokatu zituen Bilbon. Orotara, 93 partidu: 24 Ligan, 6 Kopan, 5 beste txapelketetan, 49 lagunartekoak, eta 9 Espainiako sub-21 selekzioarekin. «Athletic dena da niretzat, nire oroimen ia guztiak hor daude. Nire lehendabiziko taldea da, hor hazi nintzen futbolari bezala eta hor daukat etxea», esan du.

Horretaz gain, igandeko partidua zaila ikusten du Kikek: «Denok dakigu zernolako jokalaria dituzten

eta nola dauden sailkapenean. Ea behar den zortea izaten dugun igandean».

Raul Gañanek ez du derbia jokatzetik izango. Fitxaketak direla eta, utzita joango da aste honetan. Dena den, horrek ez du ezabatzen Athleticeko beheko mailetan zein Bilbao Athleticen bizi izan zuen guztia: «Teorian futbolearen hor irakatsi zidaten, baina igandean mendean hartu nahi ditugu».

Igandeko derbia honela dakusa Gañanek: «Haiek dira faboritoak. Talde ona dute, kalitate handiko jokalariz osatua, definizio handiko jokalariz. Baina guk etxean partidu politik egiten ditugu handien aurka, eta Athletic talde handi bat denez, neurriko erantzuna izango duelakoan nago».



JOSEBA OLALDE

Sivori udan fitxatu zuen Athleticetik, eta Alavesi utzi zion.

Sivori: «Beste partidu bat balitz bezala hartuko dut»

■ Arturo Igoroin Sivori ez da Athleticen ibili, oraingoz behintzat, eta horrela azpimarratzen digu erreportaiaren nondik-norakoa azaltzean. Izan ere, utzita dago Gasteizen, Athleticetik udan fitxatu zuen eta. Lotura dauka Bilboko taldearekin, beraz, oraindik zuri gorriekin jokatu ez arren.

Gasteiztarraren ustez, «oso zaila izango da partidua». «Argi eta garbi dago Athletic oso talde ona dela, irabaztera etorriko dela, baina partidu polita izango da jokatzeko, euskal talde baten aurrakako lehia delako».

Aurrelariaren ustez, Athleticetik utzita egoteak

ez dauka xarma berezirik igandeari begira, edo berak nahiago du horrela ikusi eta adierazi: «Ez pentsa niretzat partidu berezia izango denik. Beste bat balitz bezala hartuko dut. Hiru puntu oso garrantzitsu dira, eta gainera etxean jokatzeko dugu. Behean gaude eta zulotik alde egiteko ezinbestekoa da irabaztea».

Jon Solaun Alaveseko jokalaria da, egun Badajozen utzita egon arren, eta urtebeteko lotura izan zuen Athletic taldearekin. Hala ere, ezin izan zuen jokatu, eta Sivori fitxatzeko operazioan sartu zen Ibon Begoñarekin batera.

Osasuna ♦ Tenerifek utzita, ekaina arte nafarrekin jokatu du

Marcelino, azkenean gorritxo

Denboraldi amaieran fitxatzeko aukera izanen du

Edurne Elizondo / Iruñea

MARCELINO DIAZ jokalaria kanariarra Iruñean da. Osasunak hilabete oso bat behar izan du Tenerifeko aurrelaria ekartzeko, baina asteartean, azkenik, ados jarri ziren talde nafarra, jokalaria ordezkarari Paco Moreno eta Tenerife taldea, Marcelinok Iruñean jokatzeko. Tenerifek utzita jokatu du Marcelinok ekainaren 30a arte. Osasunak, hala ere, beste hiru denboraldirako kontratatze-ko akordioa egin du jokalaria kanariarrekin, kontratua urtebetez luzatzeko aukerarekin.

Marcelino kazetari nafarren aurrean agertu zen atzo Iruñean, eta Osasunak jokatzeko aukerarekin «oso pozik» dagoela erran zuen. Gorritxo-
en entrenatzaile Enrique Martin Monrealek bera Iruñera ekartzeko agertu duen interesa eskertu zuen Marcelinok, eta Osasunara «gogorlan egitera», eta «taldea laguntzera» etorri dela azpimarratu zuen. «Argi nuen Tenerifetik alde egitekotan Osasunara etortzeko izanen zela; oso pozik nago, eta gauzak ongi ateratzea espero dut», gaineratu zuen.

Beste gorritxoekin batera,



MIKEL UHARTE

Marcelino Diaz, atzoko aurkezpenean, Osasunako elastikoa eskuetan.

Taxoaren entrenatuko da gaur Marcelino. Osasunari buruz «talde serio eta indartsua» dela erran zuen atzoko agerraldian aurrelari kanariarrak, eta bere taldekide berrien erritmora ahalik eta lasterren egokitzeke lan egingen duela. Halaber, argi dauka Martinen hamaikakoan leku bat lortzea ez dela batere lan erraza izanen, Trzeciak, Arteaga, Ziganda eta Luis Perezekin borrokatu beharko

baitu taldearen aurrealdean jokatzeko.

Martinen ustez, taldearentzat ona izanen da postu bat lortzeko jokalarion arteko lehia: «Berriek badakite taldean leku bat irabazteko gogor egin beharko dutela lan, duten guztia eman beharko dutela, eta debalde ez dutela deus jasoko; horrek guztiak taldeari egingen dio mesede, onenak izateko borrokatuko baitira denak».

Eibar ♦ Amurrio taldeko jokalaria ohia atzo aurkeztu zuten Ipuruan

Pello Matxon ere Eibarrera

Erredakzioa / Donostia

EIBAR taldeak Pello Matxon aurkeztu zuen atzo, eta Amurrioko jokalaria ohia ekarritu itxi du Juan Luis Mardaras presidentek neguko fitxaketan zorroa. Matxonekin ados jarria zen Eibar, baina Amurriok eragozpenen bat jarri zuen jokalaria Eibarrera joateko. Atzo, azkenean, bi klubek arteko akordioa gauzatu zen eta 19:30etan aurkeztu zuten Matxon Ipuruan.

Iker Sarriegik eta Raul Iglesias atezainak, berriz, herenegun sinatu zuten kontratua Eibar taldearekin. Horrenbestez, taldea dagoeneko osatu du Eibarrek.

Sarriegik eta Iglesiasek hasiera batean Realak utzita jokatu behar zuten. Eibarrek dagoeneko bazituen, baina, Athleticetik utzitako beste hiru jokalaria: Ocio, Cortina eta Garitano. Eta Espainiako Federazioak muga hori ezarria daukanez, Sarriegik eta Iglesiasen kontratua sinatu

behar izan dute Eibarrekin. Akordiorako ez zen inolako eragozpenik izan, denboraldi amaieran Realeko bi jokalaria aske utziko dituztela hitzartu baitute bi aldeek.

Lehen taldea utziko dutenak, berriz, lau jokalaria izango dira: Javi Urrutiak klubeko bigarren taldean jokatu du aurrerantzean, Hirugarren Mailan; Unai Laraudogoitia Gernikan ariko da; Gorka Guarrotxena Figueres taldean; eta Jabi Gurrutxaga Elgoibarren, ziurrenik.